



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 20a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen tasa. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, Generalitatearen Madrileko egoitzaren aurkako indarkeriazko eraso arbuia-tzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Kataluniako Generalitatearen Madrileko egoitzaren aurka gertatutako “eraso faxista”. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren proiektuaren aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Tuterako Eguneko Ospitale Onkologikoa birkokatzeari buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egin (6. or.).
- Galdera, Nasuvinsa sozietate publikoari eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta orubeak zuzenean saltzeari eta horrek 2012ko defizitarekin duen zerikusiar buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (7. or.).
- Galdera, jakitekoa zer arrazoik eragin duten 2013ko barruko mediku egoiliarrek, aurreko urtekoekin alderatuta, izan duten irizpide- eta tratu-aldaketa, Maite Esporrín Las Heras andreak egin (8. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen ASLANA-Nafarroako Latxa Arrazako Ardi-hazleen Elkartearen egungo egoera eta etorkizun-aurreikuspena dela-eta, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (9. or.).
- Galdera, IV. Plan Teknologikoa onesteari eta haren aurrekontuari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (10. or.).
- Galdera, IV. Plan Teknologikoan eragileen inbertsio-ahaleginaren gaineko informazioa sartzeari eta ebaluatzaile independenteak kontratatzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (11. or.).

- Galdera, Industriako Zentro Teknologikoaren funts teknologikoa areagotzeari eta horrek IV. Plan Teknologikoan duen eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren eraikuntza-prozesuari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (13. or.).
- Galdera, AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafikoa areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, ASVONA-Nafarroako Boluntarioen Elkarteak Madril 2020 hautagaitza babesteko jaiaren antolatari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (14. or.).
- Galdera, AHTaren proiektuak 2014rako ezarri den gastu-mugan duen eraginari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, 2014rako defizit-mugari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen tasa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen tasa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugunok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkezten dugu, kasuko batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, 2014ko urtarrilean ezar dadin Europar Batasunak onetsitako finantza-transakzioen tasa.

Finantza-transakzioen tasa 2014ko urtarrilaren 1ean abian jartzeko konpromisoa hartu duten Europar Batasuneko 11 herrialdeetarik bat da Espainia.

Tasa hori, zeinaren bidez 5.000 milioi euro biltzera iritsi bailiteke, finantza-operatzaileei aplikatuko zaie, batik bat operaziorik espekulatiboenetan: akzioen eta bonoen salerosketen % 0,1ekoa eta deribatuen % 0,01ekoa izanen da soilik.

Espainiak azken urteotan zehar egindako aurrekontu-doikuntzaren emaitza izan da nabarmen jaitea gizarte-politiketara eta klima-aldaketaren aurkako borrokara nahiz horrek herritarren gain dituen ondorioetara bideratutako kontusailak. Tasa hori, hortaz, tresna baliagarri bat gerta daiteke bere baliabide gehigarriekin, krisiak Espainiako herritar ahulenengan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan muturreko pobrezian bizi direnengan dituen ondorio ikaragarriak arintzeko.

Ekimena bideratzen laguntze aldera, 2010ean Robin Hood Tasa Aliantza sortu zen, sektore ahulenei laguntza ematen dieten elkarterik garrantzitsuenetako batzuk bilduta.

Aurreikusitako helburuetan aurrera egiteko xedez, Nafarroako Parlamentuak ondoko ekimena onesten du:

1. Nafarroako Parlamentuak finantza-transakzioen gaineko tasaren egokitasuna berresten du, Europan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan pobrezia eta berdintasun ezaren aurka borrokatzeko behar adina funts biltzeko tresna gisa, bai eta munduko finantza-sistemaren egonkortasunari laguntzeko tresna gisa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du tasa hori 2014ko urtarrilaren 1eko datarekin ezar dezan, Europar Batasuneko 11 herrialdek, Espainiak barne, onetsi zuten legez.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berma dezan tasa

horren bidez bildutako funtsak bideratzen direla krisiak eragindako pobrezia eta berdintasun ezaren aurkako borrokara, proiektu horretan inplikaturako gizarte zibileko erakundeek betidanik eskatu duten moduan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua prematzen du erne egon dadin eta tasa Nafarroan aplikatzea negoziatzea dezan, Estatuarekiko hi-

tzarmen ekonomikoaren barnean, eta lortutako funtsak 3. puntuaz azaldutako helburuetara bidera daitezten.

Iruñean, 2013ko irailaren 12an

Foru parlamentariak: Román Felones Morrás, Maiorga Ramírez Erro, Carlos Longás García eta José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, Generalitatearen Madrileko egoitzaren aurka indarkeriazko eraso arbuiatzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere arbuio irmoa adierazten du Generalitatearen Madrileko egoi-

tzaren aurka iragan irailaren 11n, Diadaren kariatara, egin zen indarkeriazko eraso ultreskuindarra dela eta”

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu Kataluniako Generalitatearen Madrileko egoitzaren aurka gertatutako “eraso faxista”.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Kataluniako Generalitatearen Madrileko egoitzaren aurka irailaren 11n, Diadaren egunaren ospakizunetan, gertatutako ‘eraso faxista’.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du inposizio-saiakera oro, eta berresten du ezin dela

indarkeriaz adierazi inolako ideiarik edo sentsibilitaterik eta, halaber, ezberdinen arteko elkarriketa eta errespetua bultzatzearen aldeko hautua egiten du, estatu demokratiko batean onartezinak diren egintza horiek desagerrarazte aldera.”

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren proiektuaren aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak berriz ere berresten du Diputatuen Kongresuan eztabaidatzen ari diren Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren proiektuaren aurka dagoela, eta PPren Gobernuari berehala erretira dezan eskatzen dio.

Ilido berean, Nafarroako Parlamentuak adierazten du babestu egiten dituela hezkuntza-erkidegoak eskola publikoaren aldeko plataformaren bidez, non ordezkaturik baitaude irakasleak, gurasoak eta ikasleak, deitutako mobilizazioak.”

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako Eguneko Ospitale Onkologikoa birkokatzeari buruzkoa.*ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Eguneko Ospitale Onkologikoa birkokatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2013ko otsailean, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran onartu zuen, parlamentari honek

Tuterako Onkologiako Eguneko Ospitaleari buruz galdetzean, zailtasunak eta gabeziak daudela laugarren solairuko bere gaur egungo kokalekuan, zeina hasiera batean Neonatologiarako baitzen. Kontseilariak halaber azaldu zuen Ospitaleko zuzendaritza Onkologiako Eguneko Ospitalearen programa funtzionalaren lehen saiakera bat egiten ari zela, bosgarren solairura lekualdatzeko, dauden beharrezanez erantzun ahal izate aldera.

Sei hilabete baino gehiago igarota, gero eta handiagoak dira Ospitaleko laugarren solairuaren gabeziak, eta ez dago balizko lekualdatze bati buruzko berririk. Besteak beste, gora egin du jarduerak, eta hori bera zen kontseilariak otsailean zerabilen arrazoi bat bosgarren solairura lekualdatzea justifikatzeko. Hori dela-eta, honakoa galdezen dugu:

Osasuneko kontseilariak iragarri zuen Tuterako Onkologiako Eguneko Ospitalea bosgarren solairura lekualdatuko zela. Zertan da iragarritako aldaketa hori?

Iruñean, 2013ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Galdera, Nasuvinsa sozietate publikoari eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta orubeak zuzenean saltzeari eta horrek 2012ko defizitarekin duen zerikusiari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nasuvinsa sozietate publikoari eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta orubeak zuzenean saltzeari eta horrek 2012ko defizitarekin duen zerikusiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

2012ko abenduan ekin zitzaion Nasuvinsa sozietate publikoari eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta orubeak zuzenean saltzeari, 20,6 milioi euroan. 0,4 milioi dirutan ordaindu ziren, eta gainontzeko 20,2 milioiak geroratu egin ziren, gehienez ere 8 urtez 2015etik aitzina, diruaren legezko interesean.

Hauek dira galderak:

1. Nafarroak 2012ko ekitaldia ixtean daukan defizitaren zenbatekoa zehaztean –% 1,34–, diru-sarrera gisa eta, hortaz, defizit txikiago gisa zenbaturatu al dira 20,2 milioiak? Beste modu batera esanda, operazioa 2012an formalizatu izan ez balitz, zein izanen zen ekitaldi bukaerako defizita? 2012ko helburuaren azpitik –% 1,5koa zen– egonen zen?

2. Operazioa 2012an formalizatzean inbertsio/gastu-ahalmenerako 20,2 milioi alferrik galdu ditugula esan al daiteke?

3. Azken finean, operazioa zergatik egin zen 2012an eta ez zen utzi, esate baterako, 2013rako? Operazioa egin gabe defizita betetzeko ziurtasunik ez al zegoen?

Iruñean, 2013ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakitekoa zer arrazoik eragin duten 2013ko barruko mediku egoiliarrek, aurreko urtekoekin alderatuta, izan duten irizpide- eta tratu-aldaketa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer arrazoik eragin duten 2013ko barruko mediku egoiliarrek, aurreko urtekoekin alderatuta, izan duten irizpide- eta tratu-aldaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Batzordean ahoz erantzuteko.

Spainian dauden Atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onesten duen apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak, 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatua izan ostean (43. eta 199. artikulua), Egoitza eta Laneko egoerara sartzeko eskubidea ematen die barruko mediku egoiliarrei (BAME), ikasketengatiko egonaldi-baimena hirugarrenez berritzeko unera iristean.

Osasun-prestakuntza espezializatua arautzen duen urriaren 6ko 1146/2006 Errege Dekretuak BAME-en lan-harreman bereziari buruz hitz egiten du, eta ospitalearekiko harremana arautzen duen lan-kontratu bat dagoela azpimarratzen du.

Badira zenbait epai, ikasketa-bisa duten BAME atzerritarrei onartzen dietenak, osasu-prestakuntza espezializatuaren aldiak dirauten bitartean, eskubidea dutela lan- eta egonaldi-baimeneko egoera bateranzko erregulazioa formalizatzeko.

2012an, Arartekoaren Bulegoa zenbait BAMEk aurkeztutako erreklamazioen alde azaldu zen, eta Nafarroako Ospitaleguneko langileen zuzendaritzak ezezkua eman zionez izapide hori egiteari, gomendio bat egin zion Nafarroako Gobernuari, eta Nafarroako Ospitaleguneko langileen zuzendaritzak orduan burutu zuen eskatutako izapide hori.

Horren ondorioz, urte horretan berean, aldaketa hori bera egin zen hori eskatu zuten Ospitaleguneko Europar Batasunetik kanpoko beste BAME batzuen kasuan ere.

Urte horretan Nafarroako Ospitaleguneko langileen zuzendaritzarekin hitzartu zen Europar Batasunetik kanpoko BAME-ei ikasketengatiko egonaldi-txartelaren ordean Lan- eta Egonaldi-baimena emateko prozesua hastea, horretarako interesa zeukatenei. Interesdun bakoitzak izapide hori abiarazteko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu zuen Nafarroako Ospitaleguneko langileen atalean, zuzendaritzak horretarako ezarritako epean: 2013ko maiatzaren 17ko epe-mugarekin.

Geroago, maiatzaren 31n, Nafarroako Ospitaleguneko langileen zuzendaritzak ondokoa adierazi zuen: "(...) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarraibideekin bat, ez da halako izapiderik eginen".

Hori dela-eta, hauxe galdetzen diogu Osasuneko kontseilariari:

Zer arrazoi egon dira 2013ko BAME-ek aurreko urtekoekin alderatuz izandako irizpide eta tratu aldaketarako?

Iruñean, 2013ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen ASLANA-Nafarroako Latxa Arrazako Ardi-hazleen Elkartearen egungo egoera eta etorkizun-aurreikuspena dela-eta.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen ASLANA-Nafarroako Latxa Arrazako Ardi-hazleen Elkartearen egungo egoera eta etorkizun-aurreikuspena dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Aslana 1989an eratu zen, latxa arraza genetikoki hobetzea errazteko xedez eta, halatan, ustiatgien errentagarritasuna eta produktibitatea hobetzeko xedez, produkzio-sistema erdiesten-tsibo bat mantendu bidenabar.

Ordutik hona bere jarduera mantendu du, eta ondo ezaguna da Erkidegoan eta ondo ezagutzen du, noski, Gobernuak. Kasuko araudian ezarritako prozedurei jarraikiz betetzen du bere jarduera; bereziki, 368/2005 Errege Dekretuan ezarritakoei jarraikiz, esne-kontrolari dagokionez.

2009tik aitzina, krisiarekin kointzidituz, aurrekontu-saldo negatiboa dauka, are negatiboagoa izan dena 2011tik eta, batez ere, 2012tik aitzina, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-ekarpenaren jaitziera nabarmenagoa izan baita.

2013an are negatiboagoa da aurreikuspena, elkartearen iraupena erabateko arriskuan dagoelako dagoeneko, bai itxaro den defizit-bolumenarengatik –60.000 eurotik gora–, bai aurreko ekitaldietako erreserba positiborik gelditzen ez delako. Bi elementuk kointziditzen dute gainera: Nafarroako Gobernuaren ekarpena berriz ere jaitea eta Intiako langile batek –kontrolatzaile batek– emandako zerbitzua bertan behera uztea, zeina Intiaren eta bere langileen artean hitzartutako langile irazitzen barruan sartzen baita.

Gainera, etorkizuneko aurreikuspenak (2014 eta hurrengoak) ez daude argi. 2014tik 2020ra bitarteko Landa Garapeneko Programa (LGP) berria aipatzen da, baina ez da behar adina zehazten.

Hauek dira galderak:

1. Gobernuak zer jarrera du Aslanaren egungo egoeraren eta etorkizunaren aurrean? Gobernuaren ustez, bere ekarpena funtsezkoa al da latxa arrazako ardien esne-produkzio-ustiategiak mantentzeko?

2. Gobernuaren ustez, LGP berriaren eskutik heldu behar al da konponbidea? Hala balitz, Gobernua prest al dago behin-behineko konponbideren bat eskaintzeko LGP berria martxan egon arte?

Iruñean, 2013ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, IV. Plan Teknologikoa onesteari eta haren aurrekontuari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, IV. Plan Teknologikoa onesteari eta haren aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Jadanik 2012ko maiatzean, Goicoechea andreak Parlamentuko agerraldi batean informatu zigun laster onetsiko zela IV. Plan Teknologikoa. Infor-

mazioa eman zigun helburu orokorrei, adierazleei, ildo estrategikoei, helburu zehatzei eta une hartan indarrean zegoen zirriborroaren aurrekontuari buruz. 2012ko abenduan, Parlamentuko beste agerraldi batean, berriro adierazi zigun laster onetsiko zela, baina agerraldi horretan jada ez zuen aurrekonturik aipatzen.

Geroago, Gobernuak 2013ko maiatzean aurkeztutako 2013-2015 planean, berriro adierazi ziguten laster onetsiko zela, eta berriro ere aipatzen zen aurrekontua. Berrikitan adierazi zaigu berrikusi eta egokitu egin dela, onespena izapidetzeko.

Hauek dira galderak:

1. Noiz onetsiko da IV. Plan Teknologikoaren behin betiko bertsioa? 2012-2015 ala 2014-2020koa izanen da?

2. Zenbateko aurrekontua izanen du?

3. Zer gastu egin da –aitortutako betebeharrak– 2012ko urtarrilaren 1etik gaur arte? Gobernuak zer aurreikuspen egiten du hemendik 2013a bukatu bitarte?

Iruñean, 2013ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, IV. Plan Teknologikoan eragileen inbertsio-ahaleginaren gaineko informazioa sartzeari eta ebaluatzaile independenteak kontratatzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, IV. Plan Teknologikoan eragileen inbertsio-ahaleginaren gaineko informazioa sartzeari eta ebaluatzaile independenteak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

2012ko ekainaren 21ean, parlamentari honek proposatutako bi mozio eztabaidatu ziren, IV. Plan Teknologikoaren zirriborroari buruzkoak, Landa

Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean.

Horietako bat onetsi zen; hain zuzen ere, eragile bakoitzak planaren indarraldiko urte bakoitzean egindako inbertsio-ahaleginaren gaineko informazio xehakaturia planean jasotzeari buruzkoa. Bestea, ebaluatzaile independenteek urteko jarraipen-txosten bat egiteari buruzkoa, baztertu egin zen.

Hauek dira galderak:

1. Nafarroako Gobernuak koadro ekonomiko bat sartu al du IV. Plan Teknologikoaren behin betiko bertsioan, zeinak jasoko baitu zer inbertsio-ahalegin egingen duten, plana indarrean den urte bakoitzean, enpresek, administrazio publikoak eta goi mailako irakaskuntzak (Nafarroako Unibertsitatea eta Unibertsitate Publikoa bereiziz)?

2. Nafarroako Gobernua ez dator bat konpromiso bat jasotzearekin IV. Planean, aurrekontuan beharrezkoa den dirua esleitura, ebaluatzaile independenteak kontratatzeke –horien zeregina izanen litzateke planaren bilakaera mailari buruzko ebaluazio-txosten bat egitea urtero, non orobat jasoko bailirateke hobekuntza gomendioak eta iradokizunak–. Birpentsatu al du Gobernuak jarrera hori?

Iruñean, 2013ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Industriako Zentro Teknologikoaren funts teknologikoa areagotzeari eta horrek IV. Plan Teknologikoan duen eraginari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Industriako Zentro Teknologikoaren funts teknologikoa areagotzeari eta horrek IV. Plan Teknologikoan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak orain dela gutxi adierazi du Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren funts teknologikoa 30 milioi euro igo dela Nafarroaren kasuan, 2015era bitarteko aldirako.

Gauza jakina zen, jada 2012an, egiturazko funtsen programazio indardunaren aldiran –berrikuntzarako Feder funtsak– zailtasun ugari egon zirela “Funts Teknologikoa-Enpresen onurarako I+G+B” Programa Eragilea erabat aplikatzeko, eta bete gabe zegoela enpresen I+G+B babesteko esleitutako aurrekontu-kontusail handi bat.

Hauk dira galderak:

1. Iragarki horrek zer eragin du IV. Plan Teknologikoan, bai bere aurrekontu-esleipen osoari dagokionez, bai horren orientazioari, ildo estrategikoei eta horietako bakoitzaren aurrekontuari dagokienez?

2. Zertan zehazten dira, praktikan, iragarritako 30 milioiak?

Iruñean, 2013ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Berrikitan, Castejongo Ziklo Konbinatuko Zentral Termikoen auzia dela-eta Europako Parlamentuan agerraldia egin ahal izatea eskatu duela jakinarazi du Sustrai Erakuntza Fundazioak (fundazioaren prentsa oharra doa galdera honen eranskin gisa), hartara bere babesa eman ez Erriberako “+ Centrales NO” Plataformaren erreklamazioei, zeinak bere sorreratik beretik salatu izan baitu kasu honetan ez dela betetzen ari Europar Batasuneko ingurumen arloko araudia.

Nafarroako Gobernua, halere, behin eta berriro ari da esaten lasai dagoela zentral termikoen egoerari eta legezketasuna betetzeari dagokienez, baita zentralak handitu ostean ere.

Hona galdera:

• Azken hilabeteotan aldaketarik edo albisterik gertatu al da, Nafarroako Gobernuari bere jarrera

aldarazi ziezaiokeenik? Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Castejongo Ziklo Konbinatuko Zentral Termikoek legedi aplikagarri indarduna betetzeari eta haien egoera juridikoari dagokienez?

Iruñean, 2013ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren eraikuntza-prozesuari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren eraikuntza-prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuko organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

1. Lizitazioan emandakoarekiko anomaliarik detektatu al du Nafarroako Gobernuak Reyno de

Navarra Arena kiroldegiaren eraikuntza-prozesuan?

2. Ondoko dokumentuak igortzea eskatzen dut:

- Reyno de Navarra Arena kiroldegia eraikitze laguntza teknikoari eta obren lizitazioari buruz Idom laguntza tekniko enpresak egindako txosten osoa, bai eta laguntza tekniko emate aldera Idom enpresak egindako eskaintza eta kontratua.

- Reyno de Navarra Arena kiroldegiko instalazioak eta obra zibila egiteko kontratuak, balizko aldaketak barne.

- Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren eraikuntzan esku hartutako enpresa esleipen-hartzaileek aurkeztutako eskaintzak.

- Reyno de Navarra Arena kiroldegiko instalazioak eta obrak jasotzeko aktak.

- Reyno de Navarra Arena kiroldegiaren eraikuntzaren aurrekontu-egozketa eta faktura guztiak.

Iruñean, 2013ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafiko-areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, AP-15aren ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioak eragindako balizko trafiko-areagotzearen eragin ekonomikoa ikertzeko azterketa bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERARENTESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2008ko martxoan lortutako akordio batean, Gobernuak eta Audenasa enpresak batzorde tekniko bat sortzea erabaki zuten, aztertze zere eragin ekonomikoa izan lezakeen trafikoaren balizko iguera batek ohiko erabileragatiko deskontu berrien aplikazioaren ondorioz, bai eta azpiegitura horren ustiapen-kostuen gaineko eragina ere. Azterlan hori 15 hilabetetan zehar eginen zela erabaki zen.

Kontuen Ganberak Audenasaren 2003tik 2012ra bitarteko merkataritza-politikari buruz egindako txostenak jasotzen duenez, ez da ageri hala-ko azterlan bat egin izana.

– Zergatik ez da egin txosten hori?

– Ba al dago txostena egiteko asmorik?

Iruñean, 2013ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, ASVONA-Nafarroako Boluntarioen Elkarteak Madril 2020 hautagaitza babesteko jaiaren antolaketari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, ASVONA-Nafarroako Boluntarioen Elkarteak Madril 2020 hautagaitza babesteko jaiaren antolaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako organo eskudunak idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak inolako laguntza publikorik bideratu al zuen Asyona-Nafarroako Bolunta-

rioen Elkarteak, Madril 2020 hautagaitza olinpikoa-ri babesa emate aldera, 2013ko irailaren 7an egindako jaia antola zezan? Baiezkoan,

- Zer kontusailetatik atera zen horretarako dirua?

Iruñean, 2013ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, AHTaren proiektuak 2014rako ezarri den gastu-mugan duen eraginari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, AHTaren proiektuak 2014rako ezarri den gastu-mugan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2014rako ezarritako gastu-mugari dagokionez, eta horrek aurrekontu-gastuan duen eragina eta dimentsioa ikusita, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du zehazki:

AHTaren proiektuak zer-nolako eragina du, bai diru-sarrerei bai gastuei dagokienez, ezarritako gastu-muga horretan?

Iruñean, 2013ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2014rako defizit-mugari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2014rako defizit-mugari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak zer defizit-muga aurreikusten du gastu-muga zehazteko?

2. Zer eredu fiskaletan oinarritzen da 2014rako dirusarrera-aurreikuspena?

3. 2014rako aurrekontuen proiekturako gastu-muga horren oinarri den dokumentazio osoa, erabilgaitako formulak zehatz-mehatz adierazita, igortzea eskatzen dut.

Iruñean, 2013ko irailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro